

FUNTSEZKO-BALIABIDEAK

Negozio guztiek funtsezko baliabide ezberdinak behar dituzte enpresak arlo guztietan funtzionatu dezan; adibidez autobusak eraikitzen dituzten enpresek baliabide fisikoak beharrezkoak dituzte, eta autobus zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek ordea, beharrezkoagoa izango du giza baliabideak edo baliabide intelektualak izatea.

Gure enpresan ordea zerbitzu bat eskaintzen dugunez, behar beharrezkoak ditugu giza baliabideak, zeren eta etengabe bezeroekin aurrez-aurre tratatuko dugu, eta horretarako langile egokiak eta edozein arazo gainditzeko prest dauden pertsonak behar ditugu.



Bestalde, gure enpresan garrantzi handia izango duen baliabidetako bat, baliabide intelektuala izango da; arrazoi nagusia baliabide hau beharrezkoa izateko, gure web orriak sortzeko eta web orritik egiten diren erosketak guztiak modu egokian antolatzeko pertsona garrantzitsuak behar ditugulako da. Gainera jakinda gure bezero guztiak pertsona gazteak direla, beharrezkoa ikusten dugu geure sare-sozialak eta web orria modu egokian antolatuta izatea.

Gure enpresan beharrezkoa ikusten dugun hirugarren baliabidea finantza baliabidea da. Gure Handiparkean beharrezkoa ikusten dugu gure diru-sarrerak antolatzeko pertsona prestatuak izatea, eta gure bezero gazteei prezio egokienak jartzen dakien jendea izatea arlo honen arduraduna.





Amaitzeko baliabide fisikoak ditugu, baina gure ustez baliabide hauek ez dute garrantzi handia izango gure zerbitzua eskaitzerako orduan, baina bai Handipark osoa eraiki behar denean, eta baita ere uste dugu parkearen mantenuaz arduratzen diren langileak guztiz prestatuak egon behar direla edozein arazo ahalik eta azkarren konpontzeko.